

Irati Astondoak bigarren egin eban azkolarien Urrezko Kopan

10. orrialdea

Ruth Linazak Trontzako Euskadiko txapela jantzi dau

Garbiñe Lopez de Uraldegaz batera irabazi eban Euskadiko Trontza Txapelketea Gernikan abenduaren 18an, hamar ebagi bost minutu eta zortzi segundotan egin ostean. Bost bikote izan ziran lehian. Maria eta Ainhoa Iraizoz ahiztek bigarren egin eben. **11. orrialdea**



Mauriziaren gaineko Aire! dokumentaleko zuzendariari alkarrizketea

12. orrialdea

BEGITUREN 20 URTEAK DIRALA-TA GEHIGARRI BEREZIA

BEGITU sortu zantetik gaur arteko ibilbidea kontetan da bertan.

Urte garrantzitsua izan da 2022a BEGITURENTZAT. 20 urte beteteaz gainera, aurreko urtean hasitako digitalizazioa sendotu da; inoz baino biziago dago BEGITU eta publiko barri batera ailegetan da. Zertu Kultur Elkarreak Zuzendaritza Batzordea barritzau dau eta sendotze lan horretan lagunduten segiduko dau. **Gehigarri berezia**

begitu 20 urte

Etorkizuna eztabaidatuko dau Gure Eskuk



Itsasargia, eztabaida herritarren ekimena abiatu dau Gure Eskuk, bazkideek adostutako Gure Eskuren norabidea datozen urteetan. Martiaren 25ean aurkeztuko da proposamen politiko eguneratua eta bazkideek botoa emon ahal izango dabe **online**. **8. eta 9. orrialdeak**

LEMOA

Berdintasunerako Herritarren Gunea sortu dau Lemoak

Berdintasun Planaren jarraipena egin eta honen garapena bermatzeko sortu da besteak beste foro hau. Bertan, hainbat eragile egongo dira, herritarrek instituzinoek egiten dabena andra eta gizonen arteko aukera berdintasunaren aldekoa dala bermatzeko. **6. orrialdea**

AREATZA/DIMA

Areatza eta Dimako 2023rako aurrekontuak onartu dira

Areatzakoak, abenduaren 20an, aho batez eta Dimakoak hurrengo egunean, EAJ-PNVren eta Dime Aukeraturen aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz. Igaz baino diru gehiago kudeatuko dabe udal biek, baina 2023an inflazio handia aurreikusten dabe. **5. eta 7. orrialdeak**

ARRATIA/ZEBERIO

Kabalgatak, kontzertuak eta beste ekintza asko hile hasikeran

Gabonetako programek urtailako lehenengo egunak be hartzean ditue eta dozenaka jarduera egongo dira Arratian eta Zeberion urteko lehen egunetan udalek eta alkarteek antolatuta. Erregetako Kabalgatak, kontzertuak, kirol ikuskizunak, tailerrak eta beste ekintza ugari, ume, gazte eta helduentzako egongo dira.

Zinuema programako pelikula bi be ikusteko aukerea egongo da Igorren. Euskerara bikoiztutako *Nire zirkua* filma urtailaren 8an, 17:00etan eta *Black is Beltza II: Ainhoa* euskerazko animaziozko filma 15ean, 19:30ean. **5. orrialdea**

eingo eskola
tradiziozko musikea

679 417 353

eingotar@gmail.com

eingo.talde

Sabino Arana 13 IGORRE

Literatura txokoa

PROHIBIDO DUDAR. LAS 10 SEMANAS EN QUE UCRANIA CAMBIÓ EL MUNDO

"Proxy" deritxan gerra mota honetan, hots, guda gatazka ordezkatua, AEBei jagokonez behinik-behin, Errusiar Federazioak eta Ukrainak hilak ipinita, hilabeteokaz "bizi" dogun Europa zaharraren esparruan istilu odoltsu honek badauka zer agertzekorik. Saiakera honen bidez, egileak makinatxo bat adibidetan oinarrituta erakusten deusku ba ze, besteak beste, mendebaldeko gobernuen (AEB, EB, Kanada, Australia eta Japoniak batez be, osotuten daben moltsoa) esku dagozan komunikabide eta korporazino eta finantza taldeen esanetara dagozan egunkari, telebista eta osterantzeko komunikazino modu nagusiek, sare

sozialak barru, zelan eretxi desbardinak baztertu, isildu arazo, mehatxu eta gainerako hertsakera tresnak erabiliz, pentsakera bakarreko eretxiak eratu eta zabaltzen dabezan, Errusiar Federazioak Ukrainako inbasinoa burutu dauanetik hona. Aurrezdik jakin dakigun arren, adibidez, Kuwait, Irak, Siria eta abar luzearen kasuetan mendebalder demokrazien, beronen hedapenaren izenean, guzur, atakia, azpijoko... euren interes ekonomiko-politikoan helburuak zurutu guran egindako bidebakokeriak, plazaratu ahal izateko hainbat komunikabide apalogok edo kazetarik jasan behar izan dabezan gorriak ikusi arazotearaino jazarpenak be, agerian ixten deuskuz saiakegileak.

Errusiar Federazioaren inbasinoa gaitzesteko, hedabide nagusiok, txalogarri eta ereduagarritzat jo dabe ukrainar agintarien jokabidea, herritarren eskubide zibilak eta demokraziaren alde erakutsitako jokamoldea goratuz. Halanda be, ama hizkuntza daukien Ukrainako populazioaren herenaren mintzaira (errusiera, errumaniera eta hungarierea) eskubideak zuztarretik erauzita badagoz be; halaber, hainbat oposizino alderdi politiko legekanporatu, Zelenski presidente danetik, 11 hain justu, europar agintariek zelan dagozan itsukerian murgilduko adibidetat, Sanchez espainiar presidentek Kievera egin eban bisitaldian, ukrainar agintaritzari aldeko bulzadea erakusteko asmoagaz,

PSOEren kide dan alderdi legekanporatuaren gainean txitik be aitatu ez izana. Idazlan laburra, irakurterraza, adibide ugariz josita, bertan iturrietara joteko estekak emoten ditu, informazino munduan hainbeste albiste zaparradetan murgilduta bizi garanontzako beste alderik badalako adibide argia dogu liburua. Eguneroko barriei, moldeetan zaharrak, orbelaren azpian badagoala osterantzeko "egia"rik argi eta garbi azaldu deusku Serranok. Arretaz irakurri eta gogoeta egin, munduaren bilakaereari errastua galdu ez dagiotsagun.



Pascual Serrano
Prohibido dudar. Las 10 semanas en que Ucrania cambió el mundo
Akal argitaletxea, 2022
176 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112
Guardiako farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Urtailaren 2tik 8ra
Rodríguez Martínez, Igorre, Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154
22:00etatik 09:00etara
Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.
Urtailaren 9tik 15era
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908
22:00etatik 09:00etara
Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.
Urtailaren 16tik 22ra
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048
22:00etatik 09:00etara
Melero. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.
Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak
Arantzazu: 94 600 74 63
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13
Dima: 94 680 19 74
Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 45 03 61
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 01 85
Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / mankomunitatea.arratia@bizkaia.org
Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea 94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net
Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus
Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota Fundazioa 688 854 543 / info@erota.eus
Arratiako Musika Eskola 94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55
3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.
3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.
Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.
Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.
3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.
Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.
3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.
Ubideitik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.
* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.
Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.
3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. *Basauriraino bakarrik.
Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20. *Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.
Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.
Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.
Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.
Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.
Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11
Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean.
Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30etan. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizidade arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoaren arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketee:** Garbikuzi enpresea (Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Ugutz Zuluaga (Igorre) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuz.



Babesleak:



ZEURE BERBEA

Kiñu Gaztetxeko Asanbladearen idatzia

Kiñu Gaztetxeko asanbladakideak barriro bueltau gara Igorreko udal-letxera, mozino baten bitartez gure proiektua aurrera eroan ahal izateko babes eskean. Aurrekoan lez, PNV abstenidu egin da, erai-kinaren segurtasunaren atxakia-gaz asanbladearen kontra eginda. Ez dogu herriko gazteen kon-trako eraso hau bigarrenez onar-tuko. Ez gertatu danaren ostean. Abstenzino hau ezezko moduan hartuten dogu, eta PNV, gazte-xtea ez babestetik honen kontra egitera pasau dala ulertu. Beraz, jakinarazo gura dogu PNVko alder-dikideak, eta bide batez, zerbitzuz kanpo dagozan ertzainak be, ez dirala gurean ondo etorriak izango. Egunerokotasunean egiten dabe gure kontra, errepresinoa gure atera ekarrita. Horren froga dira atzen urteetan Ertzaintzak Ki-ñun identifikautako gazte guztiak, pandemia sasoian gaztetxean atxi-lotutako kidea, Kiñuren kontrako epaiketa biak eta PNVk onartuta, Zornotzako Munarri Gaztetxea

eta bertan bizi zan familia kalera-tzean, Ertzaintzak atxilotutako kide biak. Epaiketearen esperoan, urte eta erdi arteko kartzela zigorrei eta isun ekonomikoei egin be-harko deutsegu aurre. Errepresino honek gaztetxea-ren jardunean eragin zuzena dauka, urtetan luzatuten diran prozesuak dira-ta. Denpora asko emon dogu Kiñuren kontrako epaiketeari aurre egiten eta bada-kigu beste salaketa bat helduko dala. Hau jakinda, ez dogu ulertu-ten zelan errepresinoa praktikan ipinten daben ertzainak zein alkartasun eskean alboz ipinten diran jeltzaleak gure atean lotsa barik agertuten diran. Gurea espazio segurua izatea gura dogu, eta erabaki hau hartu dogu, bai jeltzale bai ertzainak gure kontrako erasotzaile poten-tzialak diralako. Koherentzia mini-mo bat baino ez dogu eskatuten. Nagusiak holan aginduta Kiñuren, okupazinoaren eta autogestinoa-ren kontra egiten dabenei gure beharra ez aprobetxetako eska-tuten deutsegu: ZETAK bueltetan bada be, ez etorri!

 KIÑU GAZTETXEKO ASANBLADEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XVI). Kale berbakunea sustatu guran

AURREKO ZENBAKIKO ARIKETEN ERANTZUNAK:

- Laster jekuzek/jekuzena Gabonetako oporrak (daukaguz)
- Hainbeste eguzki eta gero etorri dozak/dozana euriak (dira)
- Durangoko azokeak 57 urte bete jozak/jozana (ditu)
- Hotz egiten jok/jona eta nora hoa (zoaz) jake barik!

ERETXIA

Maialen Lujanbiok engainau egin ninduan



JUANJO RESPALDIZA
 Bertso irakaslea

Finalean bertan ez neutsan hain itzela eretxi Maialen Lujanbioren bertsokereari. Engainau egin ninduan, eta, mo-mentuan barik, gerora konturatu naz bertan konturatu bako asko-gaz. Alde horretatik, *mea culpa*, neu errudun. Su artifizial gitxikoak, halantxe ikusten nebazan bere bertsoak ariketaz ariketa, buruz burukoan errementau artean be-hintzat. Horren eraginez, saioan entzule nintzala ez neban igarri epaileen puntuazinoetan agiri dan aldea. Bertsoen digestino luzea-goaren ostean bistakoago egin jat aldea egon baegoala Maialenen eta besteen zereginen artean. Ura joan eta gero presea egiten danean legez, ostetik egineko go-goeten bidez ikusi dot Maialenen finaleko bertsokereak badauka-zala kontuan hartu behar diran ezaugarri batzuek nire momen-tuko despistea apur bat esplike-tako balio leikiguenak. Hasteko, hausnarketa guztiaren oinarri moduan, 2013ko Txapel-ketan berak esanekora eroan nau aurtengoak. Ordukotik ete dato-rren oingoa. Maialen Lujanbiok 2013ko final handiaren bueltan esan eban "eder eta idor" egin gura ebala bertsotan. Bide luzea egin dau asmo hak ordurik hona eta apurka-apurka idortze eder bat biribilduz joan da urteetan. Segu-ruenik 2022ko finalean gorpuztu dau bertsoak taiututeko erarik ido-rrena: lora gitxiko jantzitan mami sendoko mezua, entzulearen gogoari men egiten ez deutsana. Alarde tekniko ahalik eta urriena, erimakera ikusgarririk ez, ideia handiusteak barik esan gura dana biluzik esatea... holantxe ekin eu-tsan saioari eta holantxe amaitu atzenengo agurragaz. Bertsojera horrek, baina, ez dau bolanderarik airera botaten, ez dau bertsoa ikusgarri egiten. Kon-trara, pelikula on bat ikusten do-

gunean pasetan jakun moduan, oste ederra ixten dau detaileetan sakondu gura dauanarentzat. Pentsarazo egiten dau saioaren segidako egunetan: hau zergaitik eta beste hau zertarako. Adibidetzat, txapelagaz bota eban agurrari erreparetea da bistaratu gura dogunaren erakus-garri ederra: ez da holangoetan

entzuten usauta gagozan estiloko agurra. Ez da jenteari emozinoak sortu eta negar eginarazotekoa. Inori txapela opatu barik, gizarte-egoerea dan modukoa izanik, espabiletako dei latza egin eban txapelaren azpitik. Danontzako dei lehorra. Eta doinuaren aukerake-tea bera bere ez zan beste barik eginekoa izan: *Domingo Kanpai-na* doinua neurri txikikoa da, agur solemneetan erabiltzen ez daneta-rikoa. Neurri estu baten jaurti eus-kun despedidarako eukan mezua. Maialen Lujanbio ez zan etorri jenteak espero ebana emon eta konformetako gogoz. Konplazen-tzia hutsetik urrun, artista handien erara, badirudi "hau gura dozue, ba nik beste hau dakart zuentzat" idea ekarrela buruan, atzenengo agurrera arte. Era berean, kontuan hartze-koa da, agurraren aurretik buruz burukoaren barruan egineko Ganbarakoa eta agurra bera bloke osoa dirala ideologian eta esti-loan. "Errua inori botaten ibili barik geure buruari sartu eutsan akuilu puntea bertsoldi bietan. Alde ideologikotik konzesinorik egin barik, zaplasteko gogorra "geuk" daroagun martxeari. Geure burua-gaz konfrontarazo ginduezan, ez beste inogaz. Alde ideologikotik konzesino-rik egin ez arren, alde teknikitik, erriman-eta, hartu ebazan Maia-lenek lizentzia batzuk normalean kontuzago baliatzen diranak txapelketan: antze(r)a, ote (d)a... Eta nago, holan jokatu baeban, bere asmo orokorragaz bat egin guran egin ebala, inportantzia zeresanari emonaz (idor), zelan esana ahaztu barik (eder), baina txikikerietan indarra agortu barik bertsotan eginaz. Ni engainau baninduan, zo-rionekoa bedi engainua, modu konzientean landutako bertsojera baten ondoriozkoa izan zan eta.



LUMATUTEN



ILIA MITXELENA

Gabonak, pribilegioak eta guzurrak

Alaitasuna, ugaritasuna, familia, eskuzabaltasuna, maitasuna... gure Gabonetako zutabe handiak dira. Zenbat personek eusten deusee ansiolitiko eta antidepressiboak euren bizitzei? Egunotan zenbat tek partekatzen dabe mahaia tratu txarrak emon eutseezan edo emoten deuseezanakaz? Edo tratu txarrak emoten dituan edo abusetan dauan bikotekide ohia-gaz itxi behar ditue seme-alabak? Zenbatek ezin dabe persona maiteakaz egon emigrau behar izan dabelako? (adinbakoak be bai) edo kartzelan dagozalako? edo gaixotasunek giltzapetuta di-tuelako? Zenbat personek beste persona bat diralako plantak egin behar dabez mahaian arazorik ez izateko? Zenbatek egin behar deusie kosk mihinari senideen artean egoteko? Gure seme-alabei, bilobei, ilobei, ezetuten doguzan umeei, urtean zehar

ondo portau ezker, Olentzero-ri edota Mari Domingiri eskatu deuseezan opariak jasoko ditue-la esaten deusegu. Guzur hori, ikusi gura dogun gure ingurune hurbilenean, iragartzen diran jostailuak erosi deikieguzalako esaten dogu... eta zer gertatzen da ezin dabenakaz? Zer gertatzen da oporren ondorengo lehen egunean egun horreen gainean zer kontau handirik ez daukien ume edo gazte horreekaz? Eta egunak bakarrik etxean emon dituenakaz? Gabonen espiritua pribilegioetan, kapitalismoan eta itxuran oinarritzen dala uste dot.

Gure umeak (eta geure buruak be bai) jaubetu beharko geunkez ez daukala zerikusirik zein ondo portau diran jasoten edo ez da-benagaz jasoten; baizik eta maila ekonomikoak, errealidade so-zialak eta araugintzak mugatzen dabezala Gabonetako zutabe horreen mailak. Nire ustez, Olen-tzero eta Mari Domingi dala-ta, danok jakingo bagendu olgetan gabizala, eta guzur bat ez bagen-du manteniduko, gure pribile-gioez edo gure kalteez gehiagio jaubetu ahal izango ginatke. Eta holan, agian, egunen baten ez genduke Gabonen beharrik alai-tasunaz, ugaritasunaz, familiaz, eskuzabaltasunaz eta maitasunaz harrotzeko.

ZERTZEAN



ALVARO RABELLI

Zaborrontzia

Goizaldeko ordu bata inguruan izango zen. Kolpe handi batez, danbatekoz, itxi zuen atea bere atzetik. Ez zen konturatu ez giltza, ez mugikorra ez zuenik hartu. Kolpearen oihartzuna benetan gogorra izan bazen ere, inor ez zen irten zer gertatzen zen ikustera, auzokideek jakin bazekitelako beste kalapita bat izan be-ri zuena neska-lagunarekin. Ohituta zeuden. Hasieran, baten bat menturatu zen atentzioa ematera, ez zela unea ezta modua ere eztabaida betean jarduteko, baina hark ere etsi behar izan zuen, Joxek ez baitzion inori jaramo-nik egiten. Ausartu ere ez ziren ausartzen salaketarik jartzera, ordu txikitan zaratak eta oihuak entzuten zituzten arren, inork ez baitzuen ezagutzen Joxeren neska-laguna, ez zuen inork ikusten, ezin zioten galdetu zer gertatzen zen, ea arriskuan egon zitekeen. Joxe, ordea, bai, ondo ezagutzen zuten edo. Bazekiten gautxori modukoa zela, edota behintzat gauzez berandu etxeratzen zela, edanda, seguru, batzuen ustez, ez baitzen batere normala behin etxeratuz gero Joxeren etxetik entzuten zena, beti ordu berean eta modu berean. Joxek, gau horretan, amorruez hartu zituen zabor-poltsak, are amorruez handiagoz atea itxi zuen eta une hartan zeragoion euriari burlaize plantaz kaleko kontenedorera jo zuen. Arnasa hartu behar zuen. Ostiko batez zabaldu nahi izan zuen kontenedorearen estalkia, hain zorte txarrez ezen oina kontenedorearen estalkiari eragiteko barra artean trabatuta gelditu zitzaion. Ezin zuen oina atera. Barrari indarrez sakatzen zion guztietan estalkia zabaltzea baino ez zuen lortzen, oinak, aldiz, gatibu zirauen. Euria ez zuen atertzen, bota ahalean ari zuen eta Joxe blaitzen hasia zen, hotzak tragatuta zegoen. Pazientzia galduta Joxek borroka biziari ekin zion kontenedorearen aurka, ukabildakak ematen zizkion eta apurtxo bat baretzen zenean, kontenedoreari ziria sartu nahian edo, indarrez eragiten zion oinari, gorantz, la-kio horretatik ateratzearen. Baina kontenedorea burugogorragoa zen, ez zuen amore ematen, ostikoak jaso eta estalkia, ahotzarra bailitzan, zabaldu egiten zuen Joxeri zabor ahokada eskainiz. Inguruan zebilen mozkonti deslai bati laguntza eskatu zion kartzela hartatik askatzeko, baina mozkontiak destinaz baino ez zion begiratu, gainera botila huts bat utzi zion barrura bota zezan. Auzokide batek eskerrak eman zizkion estalkia zabaltzearen, baina Joxe bertan utzi zuen, askatu gabe. Azkenean Joxeren oihuek udaltzainak bertaratu zituzten. Berehala askatu zuten. Etxekoek zergatik ez zioten lagundu galdetu ziotenean, Joxek burua apaldu zuen, etxean ez zen beste inor, neska-lagunarena asmazio hutsa zen, bere bizimodu tristeari aurre egitearren egiten zuela aitortu zuen.

Joxek gaua pasa zuen atarian, goizean sarraila kentzera etorri ziren arte.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran mo-duan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Zorionekoak gu, bertsolarien begi zorrotza eta ausardia daukagu-lako! Besteek esaten ez dabena, munduko bertsolaririk onenek kantau ebezalako milaka personen aurrean! Eskerrik asko Maia-len, Amets, Aitor, Alaia, Nerea... ahotsik ez daukagunoi, ahotsa emo-teagaitik! Baita baztertu barrioi be, ze "herriak ta hizkuntzak/zuten norantzari/gai gehio lotu zaio" eta gai horreekaz batera, bazterketa barriak lotu jakiez lehengoei.

Eskerrik asko, eroso bizi diranak galtzaile guztien lekuan ipini arazotea-gaitik eta eskubideak defendiduteko burrukarako deia egiteagaitik. "Gal-du dugu lehengo amasa/eta balizko patxada/eta ez gara saretu eta/protestan irten plazara" baina burrukea beharrezkoa da, "kontrapisu" egiteko "eskuin balantzari" eta "borroka irabazteko/desperantzari".

Ados nago, Maialen, burruka barik, desesperantzarako arriskuan gagoz. Gainera, lehengo burrukek mehatxu barriak daukiez oin. Egia da, bide handia egin dala hainbat esparrutan, andren eta "poltsa ortzadardunen" eskubideetan, esate baterako. Ezin ukatu! Alde ede-rra 1970eko hamarkadan lesbiana izan eta gaur egun izan! baina naturalizau diran ultraeskoitiarrak hor dagoz, arrisku barriak sortzean. Eskerrik asko, horreei aurre egiteko, irribarre konplize eta solidarida-dearen indarra eta beharra erakusteagaitik.

Eskerrik asko bertsolariok egia esateagaitik!



Argazkia: Gari Garaialde.



Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Goldor 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



agoa
hagin klinika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zentrua: 101
R.P.S. 31/06

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Gabonetako ekintzak ez dira amaitu

Gurean Gabonaldia urtailaren 7ra arte luzatuten da. Udal eta alkarteek antolatutako kultura eta aisialdi ekintzak ez dira urteagaz amaituten eta urteko lehenengo egunak be hartzean ditue.

Erredakzinoa

Holan, esate baterako, Bedia eta Igorren, Erregenetako Kabalgatek jente ugari batuko dabe kale ikuskizun hau ikusteko; umeentzako antzerki edota zine saioak be egongo dira Bedian, Igorren, Lemoan eta Zeanurin. Musikeari jagokonean be, kontzertuak dagoz programauta egunotarako: Areatzako Bandaren kontzertua Igorreko Lasarte Aretoan eta urtero fetxa honeetarako bersortzen dan Stankeik taldeak kantu ezagunen bersinoak joko ditu Lemoako Karabie Gaztetxean. Kirol ikuskizunek osotuko dabe aisialdirako eskaintzea.

Bedia

Urtailak 2, astelehena

17:00etan, Gabonetako zinea ludotekan.

Urtailak 5, eguena

18:30ean, txokolatea eta Erregenetako Kabalgatea frontoian.

Dima

Urtailak 6, barikua

11:00etatik 13:00etara, Frontoï Txikiko I. Buruz-buruko Txapelketea. Izen-emotea (5 euro) 10:00etatik aurrera Baltzola jatetxean.

Igorre

Urtailak 5, eguena

18:00etan, Erregenetako Kabalgatea Kultur Etxeraino, han jasoko dabez gutunak.



Urtailak 6, barikua

19:00etan, Areatzako Bandaren kontzertua Lasarte Aretoan.



Urtailak 7, zapatua

Goizean hasita, 2013an jaio-takoentzako Futbol 7 torneoa Urbietan.

12:00etan, Munduari itzulia 80 egunetan umeentzako antzerkia Lasarte Aretoan.

Urtailak 8, domekea

17:00etan, Zinuema. Nire zirkua filma Lasarte Aretoan; 19:30ean, Vasil filma Lasarte Aretoan.

Lemoa

Urtailak 2, astelehena

11:00etatik 13:30era, Gabonetako postalak Ludotekan.

19:00etan, Zuri antzezlanak Karabie Gaztetxean.

Urtailak 3, martitzena

11:00etatik 13:30era, sukaldaritzatallerra Ludotekan.

Urtailak 4, eguaztena

10:00etan, urtekerea Cityjump-er Ludotekatik: HH4-LH2 (10:00-14:00) eta LH3-6 (10:00-17:30).

19:00etan, Los doce faros del fin del mundo liburuaren aurkezpena Txema Garcia Paredes idazleagaz Karabie Gaztetxean.

Urtailak 5, eguena

11:00etatik 13:30era, Tribal erraldoia Ludotekan.

23:00etan, Stankeik. Kontzertua Karabie Gaztetxean.

Zeanuri

Urtailak 3, martitzena

18:30ean, Izurde mutikoa umeentzako filma Arkotxan.

Urtailak 4, eguaztena

18:30ean, Ainarak dokumentala eta Anne Etchegoyenen berbaldi eta kontzertu laburra.

Zeberio

Urtailak 5, eguena

12:00etatik 14:00etara, gazteentzako ekintzak aterpean.

AREATZA

Inflazinoak baldintzatutako aurrekontuak onartu ditue Areatzan

Aho batez onartu ziran 2023rako udal kontuak Areatzan EH Bilduren bost botogaz eta EAJ-PNVren bigaz abenduaren 20an.

Erredakzinoa

Kontuon arabera, Udalak 1.736.031 euro kudeatuko ditu aurten, igaz baino %9 gehiago, baina inflazinoak, energia krisiak, Ukrainako gerreak eta ekonomia-aren egoereak orokorrean, gastuen igoerea dakarrela uste dabe udalekoek eta beraz, gastuak kontrolau behar dirala. Eta ez deusie erraza eristen, koiuntura horretan jentearen preminak gorantza doazalako.

Diru sarrerak handiagoak izango dira 2023an, batez be Udalkutxari esker, Areatzari egindako ekarpena %12,06 igongo dau eta 2023an. Personal gastuek %2,5eko igoerea izango dabe eta gastu arruntan igoerea handia izango da eta gastuok 811.333 eurora ailegetea aurreikusten da. Udalak kontratau beharreko zerbitzuetan (garbiketean, ugerlekuak, ludotekea, gaztelekua...) gastuak %10 igotea espero da eta energiaren prezioak be gorakada handia izatea. Dana dala, inbersinoetarako 298.315 euro aurreikusten dabe aurtengo kontuok.

Inbersinoak

Inbersinorik garrantzitsuenak energiaren inguruan egingo ditu Areatzak; eraginkortasun energetikoan eta urte amaieran egingo dan energia fotoboltaikoaren gaineko azterketan, esate baterako. "Auditoria energetikoak ekintza plan bat ekarriko dau eta horregaz batera, inbersino batzuk egin beharko dira. Beste alde batetik, irisgarritasunerako, auzo batzuetako bideetan lurrak jausten dira eta horretarako proiektuak daukagu 92.000 euroko diru

partidea, eta horrek lehentasuna dauka. Beste partida bat be badago frontoiko horma zuzentzeko" azaldu eban Asier Garcia Areatzako alkateak aurrekontuak onartuteko udalbatzan.

Igaz hasitako HAPOagaz jarraituteko 42.325 euroko diru partidea dago eta termiten izurriteari aurre egiteko beste 18.089 euro. Horrezaz gainera, Ur Partzuergoagaz 5 esku-hartze dagoz berbatuta eta euretako bi, 2023an egitea espero dau Udalak. Horreetarako dirulaguntzak dagoz.



AREATZA

DEN XL artisteak horma-irudia egin dau Areatzako frontoiko horman

Erredakzinoa

Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasun Zuzendaritzak Emakumeak izeneko proiektua ipini dau mar-txan, urtailean Bilbon antolatuko dan izen bardineko biltzar bateri begira, eta, hori dala-ta, hamar herri aukeratu ditu, andren erre-alidadea eta erronkak isladatzen dabezan andra artisten horma irudiak egiteko; tartean, Udalak hautagaitza aurkeztutako Areatza. Eva Mena, Den XL artisteak egin dau Areatzako horma-irudia.

Emakumeak, nazinoarteko mailako biltzarra urtailaren 17tik 20ra izango da Bilboko Euskalduna Jauregian eta erreferentzia diran hizlariak egongo dira bertan. Ordura arte, Berdintasun Zuzendaritzak hainbat jarduera antolatu ditu "diskurso feminis-tearen mapa oso bat" eratuteko eta biltzarrean egingo diran haus-

narketak osotuteko.

III. Bardintasun Plana

Areatzako III. Bardintasun Plana urtailean aurkeztuko da jentearrean. Plana egiteko Errotik Kooperatiba Feminista kontratau eban Udalak. Herriko eragileakaz hainbat bilera egin eta ekarpenak jaso ostean, Errotik enpresek

plana idatzi eta Mankomunitateko Bardintasun Teknikariagaz eta Areatzako Udaleko Bardintasun zinegotziagaz hainbat saio egin ebazan dokumentua Areatzako erre-alidadera egokitze.

Planaren kostua 13.612,50 eurokoa da. Udalak Emakunderen dirulaguntzea jaso dau eta %75 Emakundek ordainduko dau.



LEMOA

Berdintasunerako Herritarren Guneak urteagaz batera hasiko dau ibilbidea

Maraka Koop-ek gidatu eban berau sortzeako prozesu parte-hartzailea 2022ko martitik urrietara bitartean eta abenduko Osoko Bilkuran onartu eban Lemoako Udalak foroa.

Erredakzioa

Zaplast, Lemoako talde feminis- teak, Peto morea Lemoako Insti- tutuko ikasleen talde feministeak, Jai Batzordeak, Gazte Asanbla- deak, eskoleak, Guraso Elkartek, jubiladuen alkarteak, kirol eta aisi alkarteak eta Osasun Zentroak Gune-ko kide izateko garrantzia azpimarratu zan prozesu parte- hartzailean eta eragile batzuen baiezkoa jaso dau Udalak eta bes- teen presentzia bermatzeko be- harrean dago. Bardintasun zine- gotzia, bardintasun teknikaria eta hezkuntzako zinegotzia be izango dira, besteak beste, Berdintasun- nerako Herritarren Gunean. Udal administrazioaren organo osaga- rria, aholkularia eta ez- loteslea da. Lemoako bardintasun planek foro honen beharizana jaso dabe hasikeratik. "Lehenengo plane- rako proposatu zan batzorde hau osotutea, herritarrek eta eragileek bardintasun politikei jarraipena egin eta horreei ekarpenak egi- teko aukerea izan dagien" eta "herritarrek bardintasun politiken gainean daukien eragina handi- tze-ko espazioak edo bideak sortu behar doguz, eta horretarako Ber- dintasunerako Herritarren Gunea sortzea proposatzen da" irakurri daiteke Lemoako Emakumezkoen eta Gizonezkoen arteko Berdinta- sunerako II. Udal Planean. Berdintasunerako Herritarren Gunean, prozesuak izan dauan garrantzia azpimarratu gura izan

dau Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak. "Prozesuan landu dira oso sakon gune honen funtzio- namentua zertarako eta zelangoa izan behar dan, nortzuk izango diran parte-hartzaileak eta bako- txaren funzinoak zeintzuk izango diran. Oin, urtea hasten danean martxan ipiniko da eta lehenen- go hilabeteetan ikusiko dogu esandako guztia, dana ondo enkajetan dauan ala gauza bat- zuk aldatu behar diran". Bizia eta malgua dala dino eta Berdintasun- nerako Herritarren Gunearen iza- kerea definiduten dabezan hiru kontzeptu nagusiak, prototipo izakerea, partaide barriei zabalik egotea eta gardentasuna dirala.

Funzinoak eta funtzionamentua Gunearen funzinoak, Berdin- tasun Planaren jarraipena egin eta honen garapena bermatzea; bardintasun politikei jarraipena eta ekarpenak egitea; Udal arlo guztietako politiketan, persona

guztien (aniztasun osoan) arteko bardintasun osoa lortzeako helbu- ruagaz, aholkua emotea; Udalaren eta persona guztien arteko aukera bardintasunaren alde lan egin gura daberen personeren eta eragile sozia- len arteko koordinazioa erraztea; bardintasunagaz lotutako gaien inguruan hausnarketea, lanketea eta proposamen barriak egitea; norbanakoek edo taldeek, Gune- ko kide izan edo ez, egiten dituen gomendioak, proposamenak edo salaketak jaso, landu eta bidera- tzea, eta Lemoako errealidadea kontuan hartuta, aukera bardin- tasunaren alde lan egiten daberen herriko eragileen eta personeren parte-hartzea sustatzea dira.

Urtean 3 edo 4 batzar egingo dira, urteko proiektua definidu eta garatuteko. Lehenengo urtea betetakoan, funtzionamentuaren balorazioa egin eta, partaideen eta herriaren beharizanetara egokitze-ko behar diran aldaketak egingo dira.



ARTEA

Astui errekatsoak gainezka ez egiteko lanak amaitu dira

Erredakzioa

Bagilean hasi ziran lanak eta abenduan amaitu dira Uraren Euskal Agentziak egindako lanak. Errekastoak gainezka egitea pre- beniduteko, errekatsoaren arropa handitu dabe. Lanon aurrekon- tua, 70.000 euro gehi BEZa izan da. Kamino azpitik doazan ur hornidurea, saneamentua, gas hodi eta telekomunikazio kableen bidea be barritzuta da. Euri asko egiten dauanetan, As- tui errekastoa gainezka egin eta etxe batzuetan sartzean da. Izan

be, inguru horretan errekatsoak Z bat egiten dau eta, harriak eta ur asko ekarri ezker, zarratu egi- ten da uraren bidea. Horregaitik,



Udalak eskatu eutsan URA Agen- tziari lanok egitea. Bidean oke- rruneak egin eta alboak leundu dabez arropa naturalago egiteko eta BI-3530 bide azpitik doan kanala 2x1,2 metroko hodi bate- gaz bideratu da urak gainezka ez egiteko.

ARRATIA

Edertasun kanonen inguruko tailerra Zeanurín

Erredakzioa

Ilgoran Arratiako Andren Jabe- kuntza Eskoleak antolatuta, urtai- laren 11, 18 eta 25ean, Irati Gar- ciak *Nire gorputza gudu zelai bat da* izeneko tailerra gidatuko dau. Hiru saiotan, partaideek ederta- sun kanon, dietearen kulturea eta lodifobiari lotutako gaien gainean hausnartu eta erresistentzia tresnak bilatuko ditue. Horretarako, posible da feministea izatea eta konplejuak eukitea? posible da edertasun ka- non matxistei uko egin eta segurtasun faltea sentidutea edo nahikoa da neure burua maitatzea? moduko galderei erantzuten saiatuko dira. Irati Garcia ikertzaile independien- tea, lodia eta feministea da. Tailerra, hiru eguaztenetan izango da, hilaren

11tik aurrera, 18:00etatik 20:30era Zeanuriko Kultur Etxean. Izena alde- z aurretik emon behar da *arratia.net* webgunean, Arratiako Udalen Mankomunitatean, udaletxeetan edo 688 627 393 telefonoan.



LEMOA

Esther Iturrioz Rementeria izango da EAJ-PNVren Lemoarako alkategaia

EAJ-PNVren alkategaiaren arabera, "Lemoaren mesedetan eta bere onerako batzea da kontua, benetan sinisten dogulako herritar guztiok garala herri honetako parte" eta "persona guztiok lehen mailako lemoaztar" sentiduteko "lan etenbakoa egingo dogu, egunero, hurbiltasuna eta konpromisoa oinarri" izango dituala agindu dau Iturriozek.

Erredakzioa

Esther Iturrioz zinegotzi da 1999tik; legealdi bi emon ebazan udal go- bernuan eta beste bi oposizioan. Gainera gaur egun zinegotzi ardu- rak, Batzar Nagusietako ahal- dun zereginakaz buztartzen ditu. Batzar Nagusietan Kultura, Euskara eta Kirola eta Ekonomiaren Sustapena batzordeetako kide da. Iturrioz eta jeltzaleen ustez,

Lemoak "asko dauka hobetuteko alderdi guztietan, kohesino eta iraunkortasun erispideen bidetik aurrera eginez". Zentzu honetan "hazkunde jasangarri eta iraunko- rra bultzatuko dogu, ingurumena zainduz, gure herrian hain kalte- tuta dagoana". Bere esanetan, kohesinoa da talde jeltzalearen aldetik planteauko diran politiken zutabe nagusienetako bat, "gizar- tearen kohesinoa eta gure auzoen garapen bidezko eta bardintzaile- rako kohesinoa", hain zuzen be.

Esther Iturrioz

Lemoan jaio zan Iturrioz eta ber- tan bizi da. "Iturritxe auzoan bizi izan naz beti nire familiagaz" dino. Irakasle ikasketak egin eba- zan EHU-UPVn Ingeles Filologia eta Haur Hezkuntzan, baina ha- sikerako ikasketak Lemoan egin ebazan eta ikastetxe berean da- roaz 24 urte lan egiten.



Esther Iturrioz.

LEMOA

Eukeni Bikarregi aukeratu dabe Lemoako EH Bilduren alkategai izateko

"Lemoa osasuntsua, jasangarria, parekidea eta bizia eregiten jarraitzeko" hartu gura dau Saioa Elejabarrieta alkatearen lekukoa Eukeni Bikarregik.

Erredakzinoa

Gaur egun, Lemoako udal gobernu taldean Ogasun zinegotzia da Bikarregi eta alkatetzatik pasautakoa be bada, Elejabarrieta haurdun egon zanean, alkate papera bete eban eta.

2023ko maitzeko Udal Hauteskundeetan aukeratua izan ezker, EH Bildu Lemoan agintean dagoanetik martxan dagoan "proiektu eraldatzailea landuten jarraituteko" konpromisoa hartu dau Bikarregik. Horretarako, alkategai izateak izetu deutsan ilusinoaz gain, giltza bere esperientzia izango dala azaldu dau.

Izan be, Ogasun zinegotzi lez atzen urteetako udal aurrekontuen arduradun nagusia izan da. Adibide lez ipini dauz Kotxepin eta zenbait obra: "Atzen urteetan Udalak egin dauzan inbersino ekonomiko garrantzitsuenak, Kultur Etxe barria edo Arraibiko obrea, barbarako, milioi batetik gorakoak biak, gure aurrekontuagaz onartu doguz, krediturik eskatu behar barik".

Datorren legealdiko erronken inguruan oster, Bikarregik onartu dau aldaketa handiak biziko dirala, "egungo sistema ekonomikoa jasanezina" dalako eta "krisi klimatikoari aurre" egin beharko jakolako. Burruka honeek, udal mailan be landu beharko

dirala azaldu dau eta horretarako, Lemoa 2030 proiektua landuten jarraitzeko borondatea erakutsi dau, puntu batzuek azaldu izan arren.

"Ez dadila haria eten"

"Bizitzaren atal garrantzitsu baten amaierara dala-ta, Saioa Elejabarrietak agur mezu bat zabaldu dau, "Ez dadila haria eten" titulupean. Herritar eta alkateak aurrera eroandako "ehundaka proiektuen" artean, azpimarratu dau bere atea beti egon dala zabalik. Aurrera begira, Lemoako EH Bilduren proiektua "inoz baino indartsuago" aurrera doala aldarrikatu dau: "Etorkizun hori gidatzeko personarik aproposena Eukeni Bikarregi dala ebatzi dau EH Bilduren militantziak; oin, herritarren esku dago erabakia".



Eukeni Bikarregi.

LEMOA

Boulder rokodromoaren lehen zatia instalau dabe

Erredakzinoa

Boulderren rokodromoak eskalada blokean egin daitekeen aretoak dira eta Lemoako Udala lanean dabil berau martxan ipinteko. Hormek bost metro baino gixiagoko altuerara eukiten dabe eta hormetan ibilbideak sortzean dabezan presak daukiez.

Lemoaren kasuan, obra hau "kirol-ekipamentuak instalatuko

eta hobetzeko politika jarraitu baten barruan kokatzen da, aldeztu aurretik pumptrack edo kalistenia-parkeagaz egin dogun bezala" dinoe Udaletik. Boulderrean hormetako bat instalau da, eta urte hasikera honetan amaituko dirala lanak adierazo dabe.



DIMA

Bideak konponduten ahalegin berezia egingo dau Dimak

EAJ-PNV eta Dime Aukeratu-ren aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz onartu ziran abenduaren 21ean, 2023rako aurrekontuak. Horreen arabera, 1.822.817 euro kudeatuko ditu Udalak, igaz baino %2 gehiago.

Erredakzinoa

Aurrekontu honek, auzunee-tako mantenimentu lanen zerbitzua sendotu gura dau Udalak eta bideak konponduteko 250.000 euroko diru partidea dago. Urtero lez, saneamenturako, (45.000 euro) eta eraginkortasun energetikorako (30.000) dirua dago. "Udal lokal guztietako argiteria aldatuko da, Elexaldeko lokalean isolamentua ipini eta berogailua aldatuko da, askoz eraginkorragoa ipinteko" azaldu deutso BEGURI Josu Gorospe Dimako alkateak. Udal lokalen hobekuntzarako 49.000 euro dagoz. Saneamentuari jagokonean, azalera handiko herria da Dima, auzuneak sakabanatuta dagoz eta saneamentu sarea ez dago amaituta. "Gurean konstante bat da, udal gobernu guztiok heredetari dogun lana. Epe luzeko proiektua da" adierazo eban lurdana Acasuso zinegotziak.

Euskerea, kirola eta kulturea sustatuteko 64.000 euro dagoz. Musika taldeen entsegu lokala bariztauko da eta jaietarako diru gehiago egongo da, 43.000 euro dagoz aurreikusita aurten. Lehen sektorea bultzatuteko 12.000 euro

dagoz 2023ko udal kontuetan.

Aurreko urteetan egindako inbersinoak aurten emaitzak ematen hastea espero dau Udalak. Energia barriztagarrietan egindako inbersinoek aurrekia ekarriko dabela uste dabe eta danon adostasunagaz onartutako Dimako II. Berdintasun Plana martxan ipiniko da. "2022an gauza asko egin doguz bardintasunean eta oin martxan ipiniko doguz. Badaukagu plana, protokoloa be bai..."

EH Bilduk kontrako botoa
EH Bilduk kontrako botoa emon

eban, "derrigorrezkoak diran proposamen asko ez diralako kontuan hartu". Esate baterako, irisgarritasunerako 60.000 euroko diru partidea proposatzen eban EH Bilduk "atzen 3 urteotan Udalak ez dau gai honetan ezer egin. Gai oso garrantzitsua dala deritxagu eta behar dan partidea jartzeaz gainera behar diran lanak egitea eskatzen dogu" dinoe. Frontoia konpondutea, saneamentuaren azterketa orokorra, plazearen eraldaketa eta etxebizitzaren egoerearen diagnosisa da ezinbestekotzat jotzen dituen beste gai batzuk.



ARRATIA, UBIDE

Adinekoentzako eguneko zentroak ipinteko AUMeko 2023ko aurrekontuetan diru partidarik ez egotea salatu dau EH Bilduk

Erredakzinoa

Zentro pilotua Areatzan ipintea ebatzi zan oin dala lau urte eta EH Bilduren arabera, "EAJ-PNV buru dauan Arratiako Udalen Mankomunitatea ez da izan zerbitzua aurrera aterateko gai eta 2023ko aurrekontuetan ez dau diru partidarik, eta ondorioz interesik, aurreikusi".


EH Bilduk prensa-ohar batez jakinarazo dauanaren arabera, lau urte dira, AUMen eskualde mailako "menpekotasunik bako adinekoentzat eguneko zentroa" modu pilotuan egitea ebatzi zane-tik. Horretarako, alderdien artean, Areatzako Udalak xede horregaz atondutako lokala erabiltea eba-

tzi zan eta ondoren, esperientzia hori, modu mailakatu baten, gainontzeko herrietara eroatea. "Proba hau martxan ipinteko, zerbitzua bera definitu eta kontratazioa egitea falta ziran eta urtez urte

20.000 euroko partidea bideratu da AUMko aurrekontuetan. Gaia dala-ta egindako bilerak ugariak izan diran arren, EAJ-PNV buru dauan AUM ez da gai izan zerbitzua aurrera aterateko" dinoe.



Gure Eskuko bazkideek datozan urteetarako norabidea adostuko dabe



eta dinamika bat manteniduteko autofinanziazinoa beharrezkoa da, ez eukiteko inoren dependentziarik. Inori ez jako eskatuko kuota bat bazkide izateko, baina ahal dauanari eskatzen jako diruz lagundutea" dino Basozabalek.

Horrezaz gainera, Gure Eskuren finantziazino beste iturri bat Tripontzia zozketea da. Urtailaren 16an egingo da zozketea, boletoak denda eta tabernetan dagoz salgai eta sari nagusia 30.000 eurokoa da.

Egindako ibilbidea

la hamar urte honeetan, jentetza mobidu dau Gure Eskuk eta ekintza ikusgarriak egin dauz. 2013ko bagilaren 8an jaio zan Ficoban (Irun). Handik urtebetera, Durango eta Iruñea batuko ebazan giza-katea egin zan, eskuz esku 123 kilometro lotuz. Ohial kateak, bigarren giza-kate bat eta 208 herri galdeketa be antolatu ditu Gure Eskuk Euskal Herri mailan.

2019an, burujaubetzearen aldeko eragileen alkargune bat sortu eban Gure Erkuk, Hamaika Gara izenekoa. Manifestu bat adostu eta herritarren borondate eta konpro-

Hamaika puntu dagoz eztabaidagai Itsasargia prozesuan. Izan be, subirotasuna erdigunean ipini gura dabe, nortasun eta diskurso subiranista barri bat eregiteko

misoak sinadura bidez bildu ebazan; eta horregaz batera, Euskal Herriko erreferentziazko 100 lagunek Arantzazuko Adierazpena (2021) izenpetzea sustatu eban. 2022ko bagilean aurkeztu zan Hamaika Gara manifestua eta eskaerea eta Arantzazuko Adierazpena Eusko Legebiltzarrean. Garagarrilean, Pirinioetako Bidea argiztau eben subiranistek. Ekintza honetan, Kataluniako eta Euskal Herriko gizarte eragileek mendikate osoko 300 gailur argiztau ebezan.



**GURE
ESKU**



**ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO
SAREAN HARRAPAU?
GERO ETA GEHIAGO GARA!**

begitu
eus



1.008 JARRAITZAILE



334 JARRAITZAILE



2.317 LAGUN



PELOTEA

Federau bakoen herri txapelketea jokatu da Diman

Erredakzinoa

Urtailaren 6an, Frontoï Txikiko Buruz-buruko Txapelketea jokatu da lehenengoz Diman. Amateurrentzako txapelketea izango da, antoaltzaileek argi itxi dabe ez dala federaurik onartuko: "Federauak errekaral!". Partiduak frontoi txikian jokatu dira, 11:00etatik aurrera eta finala, 13:00etan hasiko da. Irabazleak txapela eta izen-emotekaz lortutako dirua eroango dau etxera. Izena emoteko, egunean bertan joan behar da Baltzola jatetxera, 10:00etatik 10:30era bitartean. Bakotxak bost euro ordaindu be-

harko dauz, hortik urtengo da eta sarietarako dirua.



PELOTEA

Sufriduta, baina Amaia Aldaik jantzi dau Diario Vascoren txapela



Amaia Aldai.

Erredakzinoa

Master Laboral Kutxako txapela jantzi eta aste bakarrera, abenduaren 17an lau t'erdiko bigarren txapela irabazi eban Amaia Aldai pelotari dimoztarrak, Diario Vascoren txapelketakoa hain zuzen be. Tolosan jokaturako finalean, Miriam Arrillaga izan eban aurkari eta Aldaik 22-20ko alde estuagaz lortu eban garaipena. Aldaik aitortu dauanez, partiduan ez zan bape be eroso sentidu: "Partidura behar baino lasaiago sartu nintzan, tensino barik. Neure jokoagaz ez nintzan gustura ibili eta aireko jokoa ezin neban egin". Halanda be, irabazten egoan, baina egoereak okerrera egin eban, eskoiko eskuan min hartu eta pelotea behar dan moduan altxau ezin barik. Alboan Olatz Arrizabalaga izan eban, botilari lanetan, eta honen aholkuak jarraitu ebazan minari aurre egiteko, "sufridu eta sufridu egin behar nebala errepikatuten eustan", kontau dau Aldaik. Bitartean, Arrillagak hogeina bardindutea lortu eban baina "sufridu" eta "suerte apur" bateri esker heldu zan 22ra Aldai.

TAEKWONDOA

Zeberio Udalak Cintado neba-arrebak omendu dauz

Taekwondoan lortutako markak dirala-ta egin deutsee omenaldia udaletxean. Andonik Munduko Txapelketan zidarra lortu eban eta Lisette, bigarren izan da Espainiako Kluben Arteko Txapelketan.

Erredakzinoa

Jon Andoni Cintado zeberioztarra bigarren izan zan Mexikon jokaturako Munduko Txapelketan, zementian. Horreri esker, mundu mailako sailkapenean hamaikagarrena, eta sailkapen olinpikoan hamazazpigarrena da Zeberio taekwondo burrukalaria. Udalak Zeberio munduko rankingetan ipinteagaitik emon eutsan abenduaren 9an Cintadori txapela eta herriko makila. Geurari egindako adierazpenean, "Zeberiori emon deustan guztia bueltan emoten nabilala sentiduten dot" azaldu eban. Honek, Zeberio gaz txikitatik daukan loturea be azpimarratu gura izan eban: "Konzientzia daukadanetik

nago hemen, eta gaur egun be, herrira buelteteak emoten deusta lasaitasuna, lehiaketakaz eta entrenamentuakaz goraino nabilanean".



Artxiboko argazkia.

AZKOREA

Irati Astondoa bigarren Urrezko Kopan

Nerea Arrutik andren Urrezko Kopako lehen garaipena lortu eban abenduaren 21ean, San Tomas egunean Donostian eta Irati Astondoak bigarren egin eban.

Erredakzinoa

Nerea Arrutik dana irabazi eban 2022an eta Irati Astondoa baten baino gehiagotan euki dau ondoan podiumean. Zemendian, Bilbon jokaturako Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusian be Arrutik irabazi eban eta zeanuriztarrak egin eban bigarren. "Balorazino positiboa egiten dot hirugarren postua lortzera joan nintzalako, ze momentu honetan Arruti eta Sorondo aurkari sano gogorak dira. Uda sano ona euki dot eta momentu askotan lortu dot euren aurretik gelditutea baina atzen al-dian gatxa da hori lortutea" adierazo deutso Astondoak BEGITU. Arrutik lehiaketa honetako oin arteko edizinerik gogorre-nean irabazi eban, aurreko lau hitzorduetan parte-hartzaileek bost oinbeteko ebagi behar izan ebezan baina oingoan, 45 hazbeteko bost enbor ebagitea izan zan egin beharreko lana. Enbor bakotxaren diametroa, beraz,



26,6 zentimetro ingurukoa izatetik 33,2 zentimetro ingurukoa izatera pasauz. Gipuzkoarra nagusitasunez gailendu zan Donostiako Trinidad Plazan. 17 minutu eta 33 segundoko markea eginda, Arrutik baino minutu bat baino arean gehiago behar izan eban Astondoak (18:48). Hirugarren postua Nerea Sorondorentzat izan zan

Andoni Cintadori egindako omenaldian, bere arreba txikia dan Lisetteri be egin eutseen omenalditxoa. Zeberioko arma-rria daukan insignia emon eutsien txapeldunordeari. Honek be, hainbat domina irabazi dauz eta atzenaldian.

Lisette Cintado

Abenduaren 4tik 6ra jokatu zan Alacanten Espainiako Kluben Arteko Taekwondo Txapelketea eta Azarri klubagaz aurkeztu zan Cintado gazteena. Pisu astunen kategoriako Junior mailan lehiatu zan eta lau burruka irabazi ebazan, finala Helena Garcia galiziararen kontra galdu aurretik. Horrezaz gain, Gazteen Europako Taekwondo Txapelketan brontzea be irabazi eban urrietan.

18:59ko erregistroagaz. Bera-tarrak irabazi zituan jokaturako atzen edizino biak, 2018an eta 2019an, baina oingoan ezin izan eban garaipenaren lehian sartu. Maika Ariztegi, 2016ko lehen edizino irabazlea, laugarren izan zan (22:51), eta Uxue An-sorregik (23:09), Beatriz Tan-cok (27:09) eta Garazi Arrutik (31:48) osotu eben sailkapena.

TRONTZEA

Euskadiko txapela jantzi dau Ruth Linazak

Erredakzinoa

Abenduaren 18an jokatu zan Gernikan Euskadiko Trontza Txapelketea eta Ruth Linaza kirolari lemoaztarra eta Garbiñe Lopez de Uraldek irabazi eben txapela, hamar ebagi bost minutu eta zortzi segundotan egin ostein.

Lehia estua izan zan eta lehenengo minutuan parean ibili ziran Iraizoz ahiztak eta Linaza eta Lopez de Uraldek osotutako bikoa. Seigarren mozketan baina, Lemoakoa eta bere kidea hasi ziran aldea ateraten eta minutu bat gorako aldeagaz, txapela lortu eben.

Bost bikote lehian

Bost bikote jardun ziran lehian. Faboritoak, Maria eta Ainhua Iraizoz ahizta nafarrak ziran; bigarren egin eben, lana sei minutu eta hamazazpi segundotan amaituta. Hamahiru segundo gehiago behar izan ebezan Lucia Etxeberriak eta Irune Biurrunek, hirugarrenak. Laugarrenak Piratak Herri Kirol Taldeko Iraide Gezura eta Amaia Mendinueta izan ziran, eta Lorea Rojok eta Amaia Jimenezek zarratu eben sailkapena.

Trontza txapelketak udan jokatu dira betidanik, baina atzen edizino bietan, Euskadiko Txapelketea abenduan jokatu da. Horrek, "en-



trenamentuak hainbat hilabete luzatutea" dakar eta Linazak udara aurreratuteko eskaerea egin deutso federazioari.

FUTBOLA

Arratia futbol taldeko jokalarien kromo bildumea salgai dago

Erredakzinoa

Arratia taldeak, 2014-2015 denporaldian egin eban lez, kromo bildumea ipini dau salgai 2022-2023 denporaldi honetan be. Bilduma honek Igorreko klubeko maila guztietako jokalaria, 23 talde eta futbol eskolea, entrenatzaileak eta zuzendaritzako kideak erakusten ditu koloretako argazkietan. Ez hori bakarrik taldearen historia be agertzen da zuri-baltzean dagozan argazkien bidez. Abenduaren 17an hasi ziran kromoak saltzean Urbietako futbol zelaian, arrakasta itzela euki eben eta egun horretarako eukiezan kromo guztiak saldu ebezan.

Maila profesionaleko jokalaria egiten zan kromo bildumea lehenago. Oin baina, oin dala 8 denporaldi lez, gure herrietako eskoletako jolastor-

duetan, ume asko ez dira idolo handien kromoei bakarrik begira izaten, eurak edo euren lagunak agertzen diran kromoen bila ibiltzen dira. "Umeak izan daitezke kromorik estimaduenetakoen irudia" dinoe Arratia taldekoek. Albumak jokalarien artean baino ez dira banatu, doban izan dabe eta jokari bakotzak bere argazkia dauka albumaren portadan.

Kirol argitalpenak egiten dituan Galiziako Cromogal enpresek bideratutako proiektuak ikusgarritasuna emon deutso Arratiari. Horrez gain, alkaterearen eta inguruko gizartearen arteko loturak estutu gura dabez ekimen honegaz.

Bilduma egiten

Igorreko Mari Jose kioskoan, On Egin-en eta Goloski eta Tentazio Gozoa gozoki dendetan dagoz salgai kromoak, boltsatxo 1,20



euroan. Boltsatxoetan ez bakarrik jokalaria, baloia, motxilak edo boltsak be badagoz sari lez. Gainera bildumea osotzeagaitik sariak dagoz eta beteten daben lehen 30 lagunek euren kromoaren A4 neurriko posterra jasoko dabe. Bestalde, bildumea amaitu eta klubean egiaztatu ostean, cromogal.com webguneko Sariak atalean sartu eta formularioa bete behar da. Horreek tablet, bizikleta eta kirol kameraren zozketan sartuko dira. Zozketa hau Cromogaleko bilduma guztien artean egingo da.

Proiektu honetatik diru apurren bat lortuko dauan arren "Arratiak ez dauka dirurik irabazteko asmorik proiektu honegaz" dino Pedro Ormazabal presidenteak. "Arratiak aukerea emoten deusku zuzendaritzakooi, ahal dogun neurrian, gizaki garan aldetik, ukatuezinak izan beharko litzatekezan alderdi guztietan lan egiteko. Errespetua, genero ikuspegia, integrazinoa eta ekologia lango balioak besteak beste, oinarritzotzat jotzen ditu gure zuzendaritza taldeak. Eta jakina, euskerearen erabilera gure proiektuaren barruan dago" gehitu dau.

FUTBOLA

Gizonezkoen Arratia A taldea lidertzan

Erredakzinoa

Gizonezkoen Arratia klubeko talde biak itzel amaitu dabe urtea; Arratia Ak 7 partidu jarraian irabazi ditu eta B taldeak osterabost. Lemoako Harrobik atzen partidu biak galdu ditu eta lidertzea galdu. Andrazkoei jagokonez, Arratia A taldea atzeko postuetan dago eta ez dabil denporaldi onik egiten eta Arratia B laugarren postuan dago.

Hamalau jardunaldiren ostean lidertzan amaitu dau urtea gizonezkoen Arratia Ak 31 puntugaz. Datorren partidua Gallarta A taldearen kontra jokatuko dau etxetik kanpo urtailaren 8an, 11:30ean. Gizonezkoen Arratia B osterahamalau jardunaldiren ostean bederatzigarren postuan dago 20 puntugaz. Datorren partidua Amorebieta B liderraren kontra jokatuko dau Urbietan urtailaren 7-8ko astegoienean.

Andrazkoen Arratia A eta B

Hamahiru jardunaldiren ostean Arratia A hamahirugarren postuan dago 11 puntugaz. Datorren partidua jatsiera postuetan dagoan Tolosaren kontra jokatuko dau urtailaren 7an, 17:30ean, etxetik kanpo. Andrazkoen Arratia B osterahamabi jardunaldiren ostean laugarren postuan dago 21 puntugaz. Datorren partidua urtailaren 7-8ko astegoienean jokatuko dau Bizkenes taldearen kontra barriro etxean.

Lemoako Harrobi

Hamalau jardunaldiren ostean Lemoako Harrobi atzenaldian lider eta bigarren egon ostean bosgarren postura bajatu da eta 27 puntu ditu. Datorren partidua urtailaren 7-8ko astegoienean jokatuko dau Arlonagusian Ezkurdi A taldearen kontra.

Gure ikastetxeak

Euskalduna

kalidadezkoa

herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza

Lehen Hezwuntza

Dorrigorrezko Bigarren Hezwuntza

Datxilergoa

Hezwuntza Zinloa

2 urtekin 13ra

MUSIKEA

Musika klasikoa eta garaikidea
ekarriko dau Ether Ensemble
taldeak Lemoan Kotxepinera



Erredakzinoa

Urtailaren 13an, 20:00etan, Ether Ensembleko musikariak kontzertua eskainiko dabe Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Estilo aldetik sailkatu ezinezko Ether Ensemblek musika garaikidea eta klasikoa eta inprobisautako zatiak batzean ditu publikoari egokitu jakon ikus-kizun errepikatuezinean. Jose Angel Babianok sortu eban 2018an, Ether Ensemble proiektua Musikene, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikas-tegian alkar ezetu eben hainbat musikari batuz. Helburua, "muga bako" musikea egitea zan. Proiektu honetako emonaldi guztiak desbardinak izaten dira. Horretarako, musikariak aldatu egiten dira eta programa desbardinak jotzen dabez.

ZINEKLUBA

Peru ezkutua eta hango
musikearen gaineko
dokumentala dakar zineklubak



Erredakzinoa

Urtailaren 12an, 20:00etan, Javier Corcuera zuzendutako *Sigo siendo* dokumentala ikusteko aukerea egongo da Igorreko Lasarte Aretoan. Kachkaniragmi esakera kitxua da, "izaten jarraitzen dot, oindi-

no banaz" esan gura dauana eta hortik hartzean dau titulua dokumentalak. Filma, Peru ezezagun eta ezkutuan zehar, hiru eskualde handitan egindako ibilbide musikal ikusgarria da. Ayacucho (Andeetako eremua), Amazonia (oihana) eta Costa (Lima, uriburu). Leku honeetan, bertako hizkuntzan kantetan jarraitzen dabe herritarrek, eta gitarrea, bibolina, arpea eta kajoia jo, eta istorioak kontetako modu bakarra gordeten dabe. Horregaitik, musikea eta musikarien gaineko istorio bat baino gehiago, herrialde ezkutu baten gaineko dokumentala da *Sigo siendo*.

JANTZEA

Arantzarteren emonaldia Igorren

Erredakzinoa

Arantzarte Dantza Taldeak Igorreko Gabonetako programazioaren barruan jantza emonaldia antolatu dau. Urtailaren 14an, zapatua, arrastiko 18:00etan izango da kiroldegian. Aurtengo ikasturtean umeen hiru talde sortu dabez, bata astelehenetan, jantzari gazte-
txoakaz, eta talde bi barikuetan; lehenengoan, 3-4 urte jantzak ikasten daroezanak dagoz eta bigarrenetan jantzari hasibarriak.

Horrezaz gain, eguazten arrastietan ikastaroa egoten da 19:00etan hasita. "Bertara, edade guztietako jantzariak animetan dira jantzeagaz eta konpainiagaz disfrutetan" dinoe taldekoek. Urtaileko emonaldian danek hartuko dabe parte. Umeak zein ikastaroetako lagunak protagonista izango diran jantzak egongo dira. Horreekaz batera eta ikuskizuna birbilduteko talde nagusiko jantzariak be hartuko dabe parte.

DOKUMENTALA

"Hasikeratik argi geunkan gazteakaz
lan egin gura genduala"



Gentzane Martinez de Osaba da Mauriziaren
gaineko *Aire!* filmaren zuzendaria.

Erredakzinoa

Gentzane Martinez de Osaba bizkaitarra da jaiotzez, eta ekoizle eta sortzailea bokazinoz. EHUn irakaslea da eta 2011n Marmoka Films ekoiztetexea sortu eban Alex García de Vicuña lankideagaz. Orduetik hona dokumentalak ekoizti eta errealizetan ibili da.

Zelan eta zergatik sortu zan *Aire!* pelikulearen proiektua?
Aire! dokumentala Bideografik Ekoizpenak ekoiztetxearen eskutik etorri jakun eta oso interesgarria iruditu jakun Mauriziaren figurea gaur egunera ekarte.

2022ko urri lehenengoan, Arteak Mauriziari omenaldia egin gura eutsan Merkartean eta horren atxakian dokumentala ekoiztea bururatu jakun. Hasikerahasikeratik argi geunkan gazteakaz lan egin gura genduala eta Arratiako Musika Eskoleak hori

ahalbidetzen euskun. Gero, Naroa Gaintza, Iraide Ansorena eta Carlos Sagi batu jakuzan proiektura eta orduan pelikuleak beste dimensino bat hartu eban.

Filmazioa bagilean hasi zan eta urri lehenengoan amaitu genduan. Momentu honetan muntaiaren fasean gagoz.

Lantaldean badago arratiarrik?
Bai, Eukeni Arriortua Igorrekoa da argazki zuzendaria, eta gazteen artean, Laiene eta Amets Igorrekoak dira eta Naroa, Lemoakoa. Carlos Sagi, musika arduraduna Iraide Ansorenagaz batera, urte askoan bizi izan da Arratian.

Arratia eta Zeberioako hainbat lekutan grabau dozue.
Grabazioak Artean, Zeberion eta Igorren egin doguz. Parterik potoloena Mandoia etxean izan da ensaioak eta alkarbizitza egiten. 12 egunez ibili gara Arratiako bailaran leku batetik bestera.
Zelan doa crowdfundinga?

Finanziazinoa bilatzea ez da erraza. *Aire!* lango proiektuetarako aurrekontu handia behar da, persona ugarik egiten dogulako lan, eta kasu honetan, 13 gazte euki doguzalako 12 egunez alkarbizitza egiten. Egia da bidelagun ugari izan doguzala; Arteako Udala, Zeberioako Udala, Laboral Kutxa, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaur-laritzea eta ETB. Ha-ta guzti be, finanziaziorearen parte bat daukagu lortzeako. Horregaitik abiatu dogu *crowdfunding* kanpaina. Momentuz %23a lortu dogu eta egunak falta dira. Oso pozik gagoz, jentea parte hartzean dabilalako eta sare soialetan zabaltzen.

Noz ikusi ahal izango dogu *Aire!*?
Pelikulea 2023ko bagilerako amaituta egotea gurako geunke. Muntai amaitutakoan, irudi eta audio postproduktzioari ekin behar deusagu, asko zaindu behar dogu eta denporea emongo dogu horretan. Gure asmoa, jaialdietako zirkuitua egitea da eta gero, aretoetara eroan gura dogu. Euskal Herriko eta Kataluniakoetara lehenengotik eta gero estatu mailan eta nazinoarte mailan, aukerarik badaukagu.

Zailtasun eta pasadizu ugari biziko zenduezan errodejear.
Erronka handiena proiektuak berak ekarrena izan da; alkar ezetuten ez eben 14 gazte etxe baten sartu eta sormen prozesu bat abiatutea: pieza musikal bat birsortu behar eben. Eskerrak emon gura deusdaz honetan gugaz egon dan jente guztiari, batez be gazteei, eta Arteako herriari.

ZINUEMA

Euskerara bikoiztutako film bat eta euskerazko
beste film bat egongo dira Igorren

Erredakzinoa

Zinuemako programazioaren barruan, urtailaren 8an, 17:00etan, Miryam Bouchard-en *Nire zirkua* (Kanada, 2020) ikusi ahal izango da euskerara bikoiztuta eta hilaren 15ean, 19:30ean, Fermin Muguruzak zuzendutako *Black is beltza II: Ainhoa* animaziozko pelikulea ikusi ahal izango dira Igorreko Lasarte Aretoan.

Nire zirkua 12 urteko Lauraren istorioa kontetan dau. Zirkuko familia baten jaiotako Laurak bere bizitza gaztearen zati handi bat biran emon dau, Bill aita bakar eta pailazo profe-

sionalagaz. Baina, ezkutuan, bizitza tradizionalago bat amesten dau Laurak eta bere ahalmen akademikoa aitortzen deusan irakasle barriari esker, ametsa betetea lortuko dau: eskola pribadu batera joatea.

Fermin Muguruzaren filmak barriz, La Pazen jaio eta Kuban hazitako Ainhoaren istorioa kontetan dau. 1988an, 21 urteagaz, aitaren lurra ezetuteko Euskal Herrira etorri eta Josune kazetari konprometidua eta honen lagun taldea ezetuko ditu. Josuneren mutil-laguna heroina gaidosia-gaitik hil da, eta Ainhoagaz joatea ebazten dau, Libano, Afganistan eta Marseillara. Gerra Hotzaren



atzen urteak dira, eta narkotrafikoaren sareen mundu ilunean eta azpijoko politikoakaz dituan loturetan murgilduko dira biak.

EGUTEGIA

Herriko ondarea eta artea batu ditu aurten be lgorreko Udalak egutegian

Aurreko urtean lez, herriko ondarearen parte diran 12 eraikinen irudiak dakarz. BEGITU argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkartek kudeatu dau lan hau.

Erredakzinoa

Angel Larrea historialari zeanuriztarrek euren balio historikoa-gaitik proposatu ditu eraikinek eta Martin Ortega Areatzakok ilustratzaileak egin ditu irudiak. Egutegia etxeetara banandu eban abenduan Udalak. Urtean zehar gainera, aurtengo eta igazko egutegian agertzen diran irudiakaz eta gai bera daukien Martin Ortegaren beste dozena bat lanegaz erakusketea egingo da Kultur Etxean. 2023ko egutegirako, Udaletxea eta Goioko Plazea Timoteo Atutxaren

plakeagaz eta Ignacio Zubizarretaren bustoagaz, Loiateko Beaskoetxea: 1832ko baserri arkuduna, Olabarri jauregia, Elexaldeko Bildosola jauregia, Gezalako Belen baserri-etxea, San Joan Bateatzailearen ermita, Santa Lutziako lehenagoko auzo-eskolea, Aita Hilario Soletaren bustoa eta Arratiako Udalen Mankomunitadearen etxea, Mikeleko San Migel ermita, Irazabal baserria, Erdoiza leinuaren armariagaz, Urkizu auzoko plazatxoa eta etxeak eta Sigurdiko harrizko zubiaren marrazkiak egin ditu Ortégak.



DOKUMENTALA

Ainarak dokumentala eta Anne Etchegoyenen kontzertua egongo dira ikusgai Zeanurin

Gabonetako egitaraua dala-ta, Zeanuriko Udalak Anne Etchegoyen konbidau dau Zeanurira.



Ainarak dokumentaleko irudi bat.

Erredakzinoa

Urtailaren 4an, Donapaleuko abeslaria protagonista dauan Ainarak dokumentala proiektuak da eta gero, Etchegoyenek berak kontzertu labur bat eskainiko dau. Arkotxan izango da saioa, 18:30ean.

Ainarak dokumentala Juan San Martin eta Ritxi Lizartzak gidatutako lana da. Bertan, Anne Etchegoyenek bidaia batean murgiltzen dauz ikusleak, bere musikeagaz lagunduta: "Denporan, geografian eta inguruabar

historiko eta personaletan zeharreko bidaia, artxibo, dokumentu, argazki eta alkarrizketen bidez". Bidaia hau 1870 eta 1940 urteen artean Aragoi eta Nafarroako andra askok neguro egin eben bidea da, Pirinioak zeharkatu eta Iparraldean amaituten zana, bertako abarketa fabriketan. Denporaldirio oinez egin beharreko bide hau ehundaka andre egiten eben. Hortik dator "ainarak" izena, enararen sinonimoa, txoriek egiten daben migrazinoaren antza eukalako.

KULTUREA

"Kultura opari bat da" kanpaina Lemoan

Erredakzinoa

Lemoako etxeetan "Kultura opari bat da" txartela jaso eben Gabonen aurretik. Lemoako Udaren ekimen honek Kotxepin Kultur Etxeko abonua kanpaina bultzatzea dauka helburu lez. Saioa Elejabarrieta alkatearen esanetan, "Kotxepineko bazkide egitearen abantailen barri emotea ez ezik, kulturak herritarroi emoten deuskunari balioa emotea eta kultur industriari merezidu dauan garrantzia emotea da". Kanpaina izen bereko bideo bategaz osotu dabe.

Etorkinentzako euskera ikastaroak urtailetik aurrera

Udaleko Euskera zerbitzuak etorkinentzako dobako euskera ikastaroak antolatu ditu 2023rako. Lemoara heldu diran personek emon daikie izena eta baktxaren beharrianak aztertu ondoren, talde bat osotu gura dabe. Ikastaro honeen helburua hauxe da: euskaltegiatako A0 mailara heltzeako euskerazko oinarritzko jakintza barneratzea. Izan be, etorkinek askotan ez daukie holango errekursorik eta euskaltegira joateko oinarritzko mailarik be ez dabe izaten. Ikasleek lehen pausua emon dagiela da Udaren helburua. Izena emoteko, <https://labur.eus/A25PW> helbidean dagoan galdetegia bete behar dabe interesa dabenek.



AGENDEA

URTAILAK 2
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Negu osoan, baimendutako aparlekuetatik kanpo ez aparketako Gorbeia Parke Naturalaren konzieniazino kanpaina, bide bazterrak, zelaiak eta basoak babestuteko helburuagaz.

Bonodenda kanpaina Orburu alkarteko komertzioetan hilaren 15era arte.

ARRATIA

Urtailaren 7ra arte, Arratiako Berbalagun dinamikeak antolatutako II. Mikroipuin Lehiaketan parte hartzeako lanak bialdu daitezke arratiaberba@gmail.com helbidera. Gaia librea da eta gitxienez 50 eta gehienez 100 berba izan behar ditu. Kategoria bi dagoz 16 urtera arte eta 16 urtetik gorakoa.

ARTEA

Gabon Postalen Lehiaketarean erakusketea Kultur Etxean. Hilaren 8ra arte.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

17:00etan, Gabonetako zinea ludotekan.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera, liburutegia zabalik.

IGORRE

Urtailaren 5era arte goizeko ordutegian bakarrik egongo da zabalik liburutegia. Ohiko ordutegia hurrengoa da: 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura.

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

16-20 urte bitarteko gazteak garagarriaren 17tik 23ra Europara bidaian joango dira. Joan gura izan ezkerro bete hurrengo galdetegia helbide honetan: <https://forms.gle/LzBQGYy6aibDVbMx7>. Maratuk antolatuta.

LEMOA

Bonu kanpaina martxan. Urtailaren 15era arte erabili daitezke 10 euroan erositako bonuak 15 euroko balioagaz kanpaineari atxikitutako komertzioetan.

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.

11:00etatik 13:30era, Gabonetako postalak Ludotekan.

19:00etan, *Zuri* antzezlanak Karabie Gaztetxean.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

URTAILAK 3
LEMOA

11:00etatik 13:30era, sukaldaritza

tailerra Ludotekan.

ZEANURI

18:30ean, *Izurde mutikoa* umeentzako filma Arkotxan.

URTAILAK 4
BEDIA

10:00etan, 18 urtetik gorakoentzako urtekerea Donostiako Gabonetako azokara. 11:30ean, azokara bisitea; 13:30ean, poteoa alde zaharretik; 14:30ean, bazkaria; 16:00etatik 19:00etara, denpora librea; 19:00etan bueltea.

LEMOA

10:00etan, urtekerea Cityjump-era Ludotekatik: HH4-LH2 (10:00-14:00) eta LH3-6 (10:00-17:30).

19:00etan, *Los doce faros del fin del mundo* liburuaren aurkezpena Txema Garcia Paredes idazleagaz Karabie Gaztetxean.

ZEANURI

18:30ean, *Ainarak* dokumentala eta Anne Etchegoyenen berbaldi eta kontzertu laburra Arkotxan.

URTAILAK 5
BEDIA

18:30ean, Erregenetako Kabalgatea frontoian. Kabalgatearen aurretik txokolataa bananduko da.

IGORRE

18:00etan, Erregenetako Kabalgatea Mandoia kaletik abiatuta, Kultur Etxeraino. Han jasoko dabez gutunak.

LEMOA

11:00etatik 13:30era, Tribal erraldoia Ludotekan.

23:00etan, kontzertua Karabie Gaztetxean: Stankeik.



Glu Glu konpainiak umeentzako antzerkia eskainiko dau hilaren 7an Igorreko Lasarte Aretoan

Glu Glu konpainiak, *Munduari itzulia 80 egunetan* Julio Vernereren liburuan oinarritu eta 5 eta 12 urte bitarteko umeentzako egokitutako antzerki bersino librea dakar Igorreko Kultur Etxera, utailaren 7an, eguerdiko 12:00etan.

Bersino honen egilea Galder Perez da eta Julio Vernereren liburuaren trama hartuta, gaurko errealidadera egokitu eta alkarbizitzaren aldeko abenturazko istorio bat kontetan dau. Munduan zeharreko antzerki ibilaldi honetan, abesti eta jantzak haria izango dira. "Publikoa ez da lekuko soila, abenturan murgildutea da xedea. Ikusleak gertaeren lekue-tan egongo dira, entzundakoari esker eszenalekutik eta besaulkietatik bidaia egingo dabe. Asmoa ikusleak dramaturgiaren parte izatea da, zer eta, soinuari esker. Hau da, ikuslegoa abenturearen parte aktibo izatera konbidauko dogu" dinoe konpaniakoek euren webgunean.

ZEBERIO

12:00etatik 14:00etara, gazteentzako ekintzak aterpean.

URTAILAK 6
DIMA

11:00etatik 13:00etara, Frontoi Txikiko I. Buruz-buruko Txapelketa. Izen-emotea (5 euro) 10:00etatik aurrera Baltzola jatetxean.



IGORRE

19:00etan, Areatzako Bandaren kontzertua Lasarte Aretoan.

URTAILAK 7
IGORRE

Goizean hasita, 2013an jaiotakoentzako Futbol 7 torneoak Urbietan.

12:00etan, Glu Glu antzerki konpainiaren umeentzako antzezlanak *Munduari itzulia 80 egunetan* Lasarte Aretoan.

URTAILAK 8
IGORRE

17:00etan, Zinuema. *Nire zirkua* filma Lasarte Aretoan; 19:30ean, *Vasil* filma Lasarte Aretoan.



URTAILAK 9
LEMOA

17:30etik 19:30era, Miriam Herbon Ordoñezek gidatutako *Elikadura kontzientea* tailerraren lehen saioa. Jarraipena astlehenero, urtail eta zezeilean.

ZEBERIO

19:15ean, komiki tailerra udaletxeko 2. solairuan. Izena aldeztu aurretik hazihezkuntza@hazihezkuntza.com helbidean.



URTAILAK 10
BEDIA

16:30etik, 19:30era, hilaren 14ra arte emon daiteke izena urtailaren 27tik 29ra, Baqueirara egingo dan eski urtekerarako liburutegian.

IGORRE

19:30ean, Igorreko Udalak Urkizu eta Garakoi auzokoakaz batzarra egingo dau 2023ko aurrekontuetan herritarren proposamenetarako gorde dan 40.000 euroko partidea beteteko proposamenak jasoteko Urkizuko ermitan. Batzarra auzoko egoerea eta hobetzeko aukerak aztertze-ko aprobetxauko da.

URTAILAK 11
IGORRE

18:00etan, Igorreko Udalak Solaguren eta San Juan auzokoakaz batzarra egingo dau 2023ko aurrekontuetan herritarren proposamenetarako gorde dan 40.000 euroko partidea beteteko proposamenak jasoteko

San Juaneko txokoa; 19:30ean, San Kristobalekoakaz, San Kristobaleko txokoa. Batzarrak auzoko egoerea eta hobetzeko aukerak aztertze-ko aprobetxauko dira.



KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK HELDUENTZAKO ZERAMIKA IKASTAROA

Areatzan astelehenetik eguenera egun bat aukeran. 11:00etatik 12:30era. 120 euro hiruhilekoa (materiala barne, labakadea ez). Interesdunek deitu 615 731 182 telefonora (Saioa Larrea).
GARAJEA ALOKATZEN DOT
Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

TXAKURKUMEA OPARITZEN DOGUZ

Ama labradore errazakoa. Interesdunak jarri hartu-emonetan gugaz: 628 041 526 telefonon.
FURGONTEA SALTZEAN DOT
1998 urteko Peugeot Boxer furgonetea, egoera onean, saltzean dot. Interesdunek deitu telefono honetara: 688 638 906.

LANA GARBIKETA LANAK

Igorrerako eta inguruetarako etxeko garbiketak egiteko zerbitzua eskaintzen dot. Interesdunek deitu 651 708 595 telefonora.

GITARRA KLASIAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528.

KLASIAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. Interesdunek 629 461 077 telefonora deitu.

ETXEA GARBITUTOKO LAN ESKAITZEA

Dimako pisu txiki bat garbitutoko persona baten bila gabiz. Interesautaz bazagoz mesedez ipini hartu-emonetan geugaz telefono honeetara idatzita edo deituta: 685 766 578 eta 675 009 872.

Zeozar saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Alvaro Rabelli eta Jose Carlos Torreren **Frantziako Dama** liburu bana.

2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina **sarrera Munduari itzulia 80 egunetan** antzezlanerako.

Martin Sagarna (Areatza)
Nuria Korta (Igorre)

Naiara Iza (Dima)
Edurne Landajo (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umeen medu
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • seimmedu@hotmail.com

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
-
SABINO ARANA 38
IGORRE
-
Tlf. 94 631 92 00

ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
ZUZENBIDE
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 • 94 673 70 55 • 94 612 11 96 • Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. beheko - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tlf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tlf. 94-673-70-87
Tlf. 609-79-40-54

**IPINI
ZURE
IRAGARKIA
BEGITUN**
Informazioa: 649 979 115
eta inigoirua@begitu.eus

ARRATIA GARBIA SARE SOZIALETAN

www.arratia.eus

Instagram



YouTube

ARRATIAKO VDALEN
MANKOMUNITATEA

begitu **20**
urte

BAIETZ
30 LAGUN
BARRI EGIN!

2023AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 35€ ☐ 55€ ☐ 75€

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.